

Zeruraino zuzen telebistaren bitartez

‘Eliza elektronikoak’ milioika fededun eta dolar mugierazten ditu Estatu Batuetan

Eliza Elektronikoa, Merkatal Erlijioa, Fedearen Marketing, Asanblada Elektronikoa eta abar luze bat dira Estatu Batuetan azken bi hamarkadetan hain indar haundia hartu duen gertaera honi atxekitako izenak. Beren buruzagien hitzei so egiten badiugu, telebista kate hauen helburua ebanjelioa ahalik eta gehien hedatzea da.

JOSU AMEZAGA / LEIOA

Horretarako XXI mendera hurbiltzen ari garen honetan gizarte industrialek mezuak zabaltzeko eskeintzen dituzten bitartekoak erabili behar dira, eta horietariko errege dena bereziki: telebista.

Lehenagoko irratia bidezko hedapenetik abiatuta, egungo tele-predikatzaile hauek telebistaren bidez sartzen dira hiritarren etxeetan munduaren hondamena iragarritz eta salbazioaren bidea erakusteko. Beren programak telebista kate propioek igortzen dituzte bereziki, beste zenbait gainontzeko kateetan erositako orduetan igortzen badituzte ere. Lortzen duten audientzia kalkulatzeko datu fidagarriak ez dagoen arren, guztien artean eta astero Estatu Batuetan soilik 12 milioi pertsonatik gora biltzen dituztela uste da. Baina misiolari modernoon lana ez da amaitzen telebistazko igorketan; horrez gain, produkzio propioa, telekomunikaziorako sateliteak, argitaletxeak, hotelak eta unibertsitateak ere badituzte, benetako inperio ekonomikoak osatuz. Ezagunetako bat, Pat Robertson, esaterako Estatu Batuetako katek garrantzitsuenetako den CBN (Christian Broadcast Network) telebista katearen sortzaile eta buru izan zen 1960tik 1987ra arte, eta orduan utzi egin zion karguari hurrengo urtean Estatu Batuetako lehendakari zarako hautagai bezala aurkeztearren, Alderdi Errepublikarraren barnean.

ERLIJIOA BAINO GEHIAGO

Telebista kate hauen presentzia bereziki Estatu Batuetan nabarmentzen bada ere, hasiak dira beste herrialde batzuetara zabaltzen. Latinameriketara, esaterako, gero eta indar haundiagoa dute, eta sendotze hori ezin da deslotu gizarte demokratikoago baten alde

ALBISTEGIA


EL MUNDO DEL PAIS VASCO egunkariak gaur kaleratuko du bere lehen zenbakia, prestaketa lan luzeen ondoren. David Barbero da egunkari berri honen zuzendaria. Espainiako Telebistak (TVE) egunkari honen spot publizitarioa zentsuratu eta aldaerazi egin du, «formula berean lotzen zituelako ‘Euskal Herria’ eta ‘independentzia’ hitzak».

JOSE MARI OTERMIN Miramoneko produkzio arduraduna izango da aurrerantzean, Eusko Irratiko zuzendari kargua utzita. Orain

arte programetako arduraduna izan den Mikel Olaziregi saio kulturaletako arduradun izango da aurrerantzean, eta Koro Lasartek umeentzako saioen arduradun izango du berriz ere, barne produkzioetako zuzendari kargua utzita.

RESISTE aldizkariaren hamaikagarren alea kaleratu dute. Bi mila ale banatu dituzte eta horietako zortziehun euskarazko edizioari dagozkio. Salneurria 175 pezetatikoa da (8 libera) eta Gasteizen nahiz Bilbon kartzatzen da bost urte inguru

dituen aldizkariaren kolektiboaren oinarria. Euskal Herriko taberna, gaztetxe eta liburu denda batzutan dago salgai, Estatu espainiarreko, Europako eta beste tokitako puntu askotara bidaltzeaz gainera. Apirilaren 28an alaitu ospatu zuten Resistekoek hamaikagarren alea Gasteizko Gaztetxean, Potato taldearen reggae-musikaz. Gaur egun, kolektiboko kideak aldizkariaren etorkizuna eztabaidatzen ari dira, «gai edo parte hartzaileen aldetik zabalago bihurtzeko nahiz argitalpen-maiztasuna finkatzearren ere».



Bush tele-predikatzaileen programa batean. Hauek garrantzi handia dute gizartearen.

IRA SCHWARTZ

GUZTIEN artean eta astero Estatu Batuetan soilik 12 milioi pertsonatik gorako audientzia biltzen dutela uste da.

TELEBISTA kate hauen presentzia bereziki Estatu Batuetan nabarmentzen bada ere, hasiak dira beste herrialde batzuetara zabaltzen.

rrantzitsu bat da: «Lourdesen orain arte mirarizko osasunketaren hamaika kasu baino ez dira frogatu. Baina guk hemen milaka kasu ikusi eta frogatu ditugu. Zuk ez duzu beste inon santutegirik topatu beharrik». Hau dioen Pat Robertsonek 10.000 kasu dokumentatu duela baieztatzen du (Oh, Jauna, senda ezazu minbizi hau! Oraintxe Jauna!... Eskerrik asko, Jesus). Mirari hauek gain kapitalaren logika ere oso presente dago eliza elektronikoan: «Jainkoak bedeinka zaitzateela zuen gorputzetan, zuen izpirituetan eta zuen finantzetan!». Kapitalismoaren etika eta bizimodua go-raipatzeaz gain, trust hauek lagundu egiten dute munduko hainbat mogimendukontrainsurjente, hala nola duela gutxira arte Nikaraguako kontrak edota Israel zein Hego Afrikako gobernuak.

IZUGARRIZKO NEGOZIOA SAKONEAN

Eliza elektronikoaren azpian dagoena izugarrizko negozioa dela dio hainbatek. Izan ere, telebista hauek asko entresa haundi bilakatu dira, eta batzuren bizimoduari erreparatzen badiogu oso errentagarriak direla esan behar: Jim eta Tammy Bakker senar-emazteak, predikatzaileen mun-

dua 1987 eta 1988ena astindu zuen sexu-eskandalura arte bederen, beren etxetako urrezko iturriak edota txakurraren etxetxoko aire egokitua zituzten arraskasta horren adierazle. Dirua lortzeko bideak, ezberdinak dira: eremu sakratuaren salmenta (alegia, telebista zentruak eraikitze beharrezkoak diren errektursoak lortzeko kanpaina bereziak), otoitz denboraren salmenta (ordaintzen duenari denbora tarte bat bere aldeko otoitza egitearen hitza ematen zaio), elkartean sartzeko kuota, erriliken salmenta (hauek ere modernoak; esaterako, Jaungoikoaren Banketxearen giltzak edota predikatzaileak, zerutik zuzenean jasotako mezua duen kaseta), eta programa diru faltaz bertan behera utzi beharrean mehatxua.

Honelako bideak erabiliz, sei milioi pertsonak ordaintzen omen dio ohizko kuota bat honelako katearen bati. Horietako askorentzat pozgarri bihurtzen da etxera bere izenez heltzen zaion eskutitza, emandako laguntzagatik eskerrak emanez. Gutxi inporta du, ordea, alde aurretik sistema automatiko batek harpidedunak bidalitako gutuna hartu, zabaldu, aukeratu, eta erantzuna idatzi izanak.

BESTEKE SANA

‘In God We Trust’

HUGO ASMANN

Garai hartako (50 eta 60etako) teologo iparramerikarren pentsamoldea eta orduko eliza gehien joera liberal modernizatzailea apur bat ezagutzen dituenarentzat, argi dago gero eta piztiago zen kapitalismo batek ezin zuela espero, teologo eta eliza horien aldetik, legitimaturik jarraitzeko behar zuen euskarri ideologikoa. Iparrameriketako histo-

rian zehar hain funtsezkoa izan zen *civil religion* delakoa, krisialdi sakon batean murgiltzen da 50 eta 60etan, honela erlijio-ideologi berriak ‘In God We Trust’ (‘Jaungoikoarengan dugu konfidantza’) delakoaren funtzio ordezkatzaileak betetzen has daitezen eremu bat zabaltzen delarik.

□ Hugo Asmann teologo eta soziologo brasildarra da.